







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Kontsumitutako elektrizitateak %4,4 egin zuen behera martxoan, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean.

Beharakada horren eragile nagusia industria izan zen, %11,7 jaitsi baitzen: zehazki, siderurgiak eta galdagintzak %24,6 egun zuten behera. Etxe edo bizitegi eta zerbitzu arloak, berriz, %7 eta %6 igo ziren, hurrenez hurren.

2012ko lehen hiruhilekoan kontsumoa %7 jaitsi zen. Arloka adierazita, industriak %12,2 egin zuen behera (%24 siderurgiak) eta bizitegiak %2,5. Zerbitzu alorra, ordea, %2,8 igo zen.

Gas naturala

Martxoan, gas natural konbentzionalaren kontsumoak %18 egin zuen behera, 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta; guztizko kontsumoa, aldiz, %6 igo zen.

Lehen hiruhilekoaren ondoren, guztizko kontsumoak %13 egin du gora; konbentzionalak %0,7 eta zentral termikoenak %120.







Erregaiak garraioan

Otsailean erregaien kontsumoa %2 igo zen, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %8,7 egin zuen behera eta gasolioenak, berriz, %3,5 egun zuen gora.

Erregaien kontsumoa %1 jaitsi da urte mugikorrean, gasolinena %7 jaitsi da eta gasolioena %1.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Martxoan, munduan petrolioaren kontsumoak %1 egin zuen gora, 2011ko hil horretan izandakoaren aldean, eta 88 Mbpd iritsi zen. Hala, Europar Batasunean %1 egin zuen behera kontsumoak (14,2 Mbpd), AEBetan %5,3 (18,2 Mbpd) eta Txinan, berriz, %4,9 egin zuen gora (9,9 Mbpd).

Munduan, petrolioaren batez besteko kontsumoa %0,8 igo da 2012ko lehen hiruhilekoan, oro har, eta Txinan %4,5; Europan eta AEBetan, ordea, %1,8 eta %4,4 jaitsi da, hurrenez hurren.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, apirillean elektrizitatearen kontsumoak %2,2 egin zuen gora, 2011ko hil horretan izandakoarekin erkatuta, eta lehen hiruhilekoan %0,3 jaitsi da.







Martxoan, gas naturalaren kontsumoak %9,2 egin zuen behera; eta lehen hiruhilekoaren kontsumoa %0,1 jaitsi da.

Garraioan, Espainian erregaien kontsumoak %4,3 egin zuen behera otsailean 2011ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %5,7 jaitsi zen, eta %4 gasolioen kasuan. Erregaien kontsumoaren beherakada %5,2 izan da urte mugikorrean.

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %0,5 egin zuen behera otsailean, 2011ko otsailean izan zen kontsumoaren aldean; eta urte mugikorrean kontsumoa %5,3 igo da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIaren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Martxoan, Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 125 \$ (94,6 €) izan zen. Urtean batez besteko prezioak %32 egin zuen gora, aurreko epealdian izandakoaren aldean (%27 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %10,4 igo zen otsailean, 2011ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 23,9 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %22,6 egin zuen gora hil horretan, iazko hil berean izandakoaren aldean (29,8 €/MWh).

Ikatzaren prezioa

Ikatzaren prezioa otsailean 97,8 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %16,5 igo da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %2 egin zuen gora martxoan, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 47,6 €/MWh iritsi zen.

Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren prezioa 1,36 €/l izan zen eta gasolinarena 1,43 €/l martxoan. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %7,2 eta %10,6 igo ziren, hurrenez hurren, eta inoizko preziorik altuenak dira.

CO₂-ren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 8,6 €/t izan zen otsailean; 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %42,7 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.